

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Batez ere, enpresa guztiek bezala, beharrezkoa den diru-kopurua behar da lanean hasi ahal izateko eta hori egiteko behar diren materialak edukitzeko.

Alde batetik, arropa emango digun enpresa bat aurkitu beharko dugu. Eta, bestetik, erosleek nahi dituzten aldatetak egiteko behar diren materialak. Gure enpresa sortzeko leku bat beharko dugu eta hortik lana egingo dugu web-orria sortzeko eta enpresa handitzeko. Leku hori ere erabilgarria izango da arropa egiteko eta materiala gordetzeko. Langileak bilatu beharko ditugu enpresa aurrera eramateko. Baliabide ekonomikoak eta fisikoak ere beharko ditugu enpresa aurrera eramateko.